



Gipuzkoa EkitAktiboa

Ikerketa-Aktibatzailearen emaitzak

Juan Aldaz Arregi

1.	Lanaren Aurkezpena	1
	a. Sarrera	1
	b. Lanaren oinarriak eta balioak	1
	d. Oinarri kontzeptualak	1
	e. Metodologiaren deskribapena	3
	f. Ko-Kreatzaileak	5
	g. Lanaren antolaketa	6
2.	Kirol ohituren diagnostika. Ba al dakigu nondik ekiten diogun gizarte EkitAktibo baten sustapenari?	7
	a. Diagnostikan sakontzen	8
	i. Adina	9
	ii. Generoa	10
	iii. Osasun Psikofisikoa	11
	iv. Klase Soziala	12
	v. Etnia	13
	b. Kirolaren izenaz eta izanaz. Krisi sortzaile batean murgilduak ote gaude?	15
3.	Egungo jardunbide arautuak. Zein erreminta, nola, eta zeinen laguntzarekin ari gara baliatzen?	16
	a. Erreminta formalak dimentsio sozioekonomikoen perspektibatik	17
	i. Adina	18
	ii. Generoa	19
	iii. Osasun Psikofisikoa	21
	iv. Klase Soziala	22
	v. Etnia	24
	b. Kirolaren ideia bera ez ote gizarte EkitAktibo baterako galga	27

d. Zeintzuk dira gure aliatuak gizarte EkitAktiboagoko eraikuntzan?	28
4. Etorkizun <i>EkitAktiboa</i> eraikiz	30
5. Behin-behineko hausnarketa pertsonala	31
6. Iturri bibliografikoak	33
7. Eranskina	35

1. Lanaren Aurkezpena

a. Sarrera

Hemen aurkezten den proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak (aurrerantzean GFAKZ) egindako enkarguari erantzuten dio.

Enkarguak, helburu bikoitz bati erantzutea du jomuga. **Gipuzkoako herri ezberdinetan ekitate ezari eragiten dioten faktore nagusiei udal kirol politikatik nola erantzuten ari zaien ezagutzea**, batetik, eta honen eskutik, **ekitatearen gaineko begirada bat aktibatzea berauengan**. Biak ere, GFAk bere Plan Estrategikoan zehazturiko populazio inaktiboa % 5 murrizteko (% 3 gizonezkoen kasuan eta % 5 emakumezkoen kasuan) helburua jomugan izanik.

Nolanahi ere, denen arteko eraikuntza partekatu bat abian jartzeko lehen harria izan nahi du lan honek. Ez gehiago, ez gutxiago. Zentzu horretan, euskaraz esan ohi dugun moduan, aurrez ongi esanak hartu eta gaizki esanak barkatu.

b. Lanaren oinarriak eta balioak

Lan honen erronkari heltzerako garaian, argi eta garbi, adituaren mozorroa kendu eta artisauaren langintza aldarrikatuz abiatu nintzen. Zergatik diot hau? Hemen egiten dudan ekarpena, zuetako askok egindakoarekin batera, beste bat gehiago delako. Ez gehiago, ez gutxiago. Errespetutik eta xumetasunetik egindakoa eta, esan bezala, egiten ari garen bide luzean, kirol politketan, ekitatearen sentsibilitatea lantze bidean jarri nahiko lukeena.

Gauzak horrela, debatean galdu aurretik, kirolaz ariko naiz une oro eta ez kirolaz eta jarduera fisikoaz. Kirola diodanean, bere konplexutasunean eta aniztasunean, jarduera fisikoa barneratzen dudalako (Aldaz 2010 eta 2014).

Kirolaren gainean, gainera, badirudi bere onuren gaineko mitologia moduko bat badagoela, nolabait “kirola ona delako” baieztapen ukaezin bat eraiki dugularik denon artean. Honen gainean, ez dut uste debaterik dagoenik. Kirola ona da ondo eginez gero, Coalter-ek dioten moduan (2007).

Edonola ere, ikerketa-aktibatzaile honen muinean dago sinestea gizarte hobeagoko bat eraiki dezakegula kirolean eta kirolaren bitartez.

d. Oinarri kontzeptualak


Lan hau abian jartzeko ezinbestekoa izan da hainbat kontzeptu argitzea, behin betiko ez bada ere.

Zergatik diot behin betiko ez bada ere? Bada ekitateaz ari garenean, hiztegi ezberdinek beren ekarpena egiten badute ere, bizia den kontzeptu batez ari garelako, denen artean eraiki beharrekoa, eta denen artean, ere, zentzua eman behar dioguna.

Zentzu horretan, gainera, kirola eta ekitatea harremantzen saiatzerako garaian, argi dago, kirolaren eragin sozial positiboaz (zentzu zabalean) hitz egin nahi badugu, ekitatea eta kirola eskutik joan behar direla, eta, aterki moduko ideia bat proposatze aldera, gerora denen artean eraiki beharko duguna, esan bezala, *EkitAktibo* hitz jokoia, ezin aproposagoa delakoan nago.

Eraikuntza honetan, gainera, ekitatearen perspektibatik gizarte-kalteberatasunarekin kontuan hartu beharreko aldagai sozioekonomikoak jarraian irudikatzen ditudan generoa, adina, klase soziala, etnia eta osasun psikofisikoa leudeke (ikus **1. irudia** jarraian):

1. irudia: Gizarte desberdintasunarekin loturiko dimentsio sozioekonomikoak.



Gure lanean, dimentsio hauen argitara aztertuko ditugu, baina jardunbide arautu bezala izendatu ditugu ordenantzak, diru laguntza oinarriak, hitzarmenak, arautegi ezberdinak eta kirol ohituren gaineko tokian tokiko ikerketak eta plan estrategikoak.

e. Metodologiaren deskribapena

Lan hau aurrera eramateko metodologia anitz eta adaptatibo bat baliatu dugu, eta bidean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritzaren eskutik joan naizelarik, bereziki eskertu behar dut Unai Asurmendiren eta Iñaki Iturriozen inplikazioa.


Elkarrizketatu beharreko pertsonen aukeraketa eta harremana haien laguntzarekin egin da, norberaren udaleko kirol politikan eragile esanguratsuak izatearen irizpidea baliatuz; bai argazkia ateratzeko nola gerorako aktibazioari dagokionean.

Zentzu honetan, lan honek ebaluazio ikerkuntzatik edaten du hein handi batean, balio zentralizat dituelarik emaitzen erabilerara bideraturiko ikuspegia (Patton, 2008), enkargua egiten duten eragileei erantzutea (Stake, 2004), parte hartzailea izatea (Guijt y Gaventa, 1998) eta estimatzailea izatea, egin den lana baloratuz (Preskill y Catsambas, 2006). Kirol eragileen ikasketa sustatuaz beren lana hobetzen lagundu asmo duen lana izaki (Preskill y Torres, 1999), Alkinek baliatzen duen *stakeholder primarioaren* (2011) ideia gure eginez, lan hau beren beharrei erantzutera zuzendua dago. Beste kontu bat da zenbateraino lortzen duen ala ez.

Laguntzeko asmo honi jarraiki, aitortu behar da lanak bere gain baduela kontraesan garrantzitsu bat, kirol politika eta ekitateaz ari garen honetan: herri txikienekin hartu emanik izatea ez lortu izana. Horrek, zalantzarik gabe, gerorako lanketa bat eskatzen du beren beharrei entzungor ez egite aldera, zeren, egia bada ere saiatu egin garela, honek ez baitu justifikatzen ez lortu izana. “Txikien” bila lan gehiago egin beharko dugu aurrerantzean.

Lan honek esparru ezberdinak aztertu ditu; nahiz eta hemen kate moduko batean irudikatzen diren, egiaz modu dialektiko batean eman dira. Are eta gehiago, gurpilaren forma horretan ere, jiraka jarraitzeko asmoarekin jaiotzen da hasiera-hasieratik.

2 irudia: Gipuzkoa EkitAktiboa ikerketa-aktibatzailearen ekintza esparruak



Testuinguruaren analisirako, SIISek egindako lanaz baliatu gera, baina baita ere Eustat eta Ikuspegik (Immigrazioaren Euskal Behatokia) argitaratzen dituen datuetan oinarritu gera. Edozelan ere, honen emaitzak ez dira lan honetan modu zuzenean azalarazten. Emaitza nagusiak *Promoción del deporte en colectivos en situación de exclusión socioeconómica: principios de actuación y buenas prácticas* lanean aurkitu litezke.

Berrikuspen bibliografikoari dagokionez, honen emaitzak Deustuko Unibertsitatearen Aisiazko Ikaskuntzen Institutuak argitaratzen duen *Estudios de Ocio* bilduman argitaratuko da *¿Avanzamos hacia sociedades más EquitActivas? La experiencia guipuzcoana en materia de política deportiva ante un reto global complejo* izenburupean.

Ekarpen hauek lan honetan ez jasotzearen zergati nagusia da irakurketa erraztasuna bermatzea, ikasketa partekatua esperientzia lehenetsiaz.

Udalerrri bakoitzeko kirol praktikaren diagnosa eta jardunbide arautuen analisi normatibo-estrukturala egiteko bidea bikoitza izan da, proiektuaren izaera ikertzaile-aktibatzailea bitarteko.

Estrategia nagusia izan da, behin udalerrri bakoitzeko kirol eragilearekin elkarriketatu ostean, posta elektronikoz jarraian azaltzen diren dokumentuak eskatzea:

- Kirolletako ordenantza fiskalak 2018.
- Diru laguntzak 2017. (klub, kirol gertakari, kirolari,...).
- Arauak eta erregelamenduak (instalazio, sarbide,...)
- Hitzarmenak erakundeekin
- Parte hartze memoria edo eta ikerketarik
- ...

Eskaera honen erantzuna kasuan kasukoa izan denez, bigarren estrategia izan da udalerrri bakoitzaren webgunearen bitartez informazio hori jasotzen saiatzea.

Orotara, 37 udalerritako jardunbide arautuak aztertu dira, Gipuzkoako lau mila biztanlez gorako udalerrri guztiak, Gipuzkoako populazioaren % 93,2 adierazten dutenak.

Diagnosi hau, gainera, elkarrizketatuen pertzepzioarekin osatu behar izan da, aurkituriko tokian tokiko diagnosa falta tarteko. Horretarako, tokian tokiko kirol eragileei egindako 43 elkarrizketez baliatu gera, aipaturiko lau mila biztanle gorako 37 udalerrriak barne, Gipuzkoako populazioaren % 94,6 alegia.

Nolanahi ere, aitortu behar da bereziki webguneetako analisiari dagokionean, informazio hau aurkitu ez izanak ez duela esan nahi informaziorik ez dagoenik gai hauen inguruan.

Lan honek, esan bezala, izaera bikoitza du. Ikerketa da, bai, baina izaera aktibatzailea duen ikerketa. Hau da, denon artean eraikitako argazki bat izatea du jomuga, gizarte *EkitAktibo* batetarako eraikuntzan eskutik joateko. Honetan datza aktibazioaren ideia, hau, argazkia bezala, honetatik eratorriko den bidea ko-kreatua izan behar duela (Espositok eta Murphyk dioten moduan, 2000).

f. Ko-Kreatzaileak

Lan honetan, orain artean, partaide izan gara:

- Joxe Mari Aiertza
- Ixiar Olano
- Jone Larrañaga
- Garazi Larrea
- Asier Mujika
- Larraitx Sanzberro
- Mikel Arostegi
- Jesus Arrizabalaga
- Nerea Lopetegui
- Ion Alkaiaga
- Iñaki Ugarteburu
- Aitziber Murua
- Iñaki Egaña
- Leire Landa
- Iñaki Iruretagoiena
- Felipe Zamakola
- Ramon Mujika
- Jon Txasko
- Jesus Mari Erzibengoa
- Josu Ezkurdia
- Ainize Lizarralde
- Jose Ignacio Atorrasagasti
- Manolo Aierbe
- Pilar Valenciano
- Javier Echepare
- Pablo Murias
- Carlos Altuna
- Jokin Izagirre
- Peio Garmendia
- Arkaitz Angiozar
- Sonia Garcia
- Mikel Mariezkurrena
- Jon Treku
- Jokin Agirre
- Oscar Carrascal
- Kike Mokoroa
- Odilo Rivela
- Mikel Izquierdo
- Ibai Saavedra
- Maria Gallastegi
- Arantza Estanga
- Xabier Madina
- Miguel Angel Cristobal
- Amaia Zabaleta
- Iratxe Aranburu
- Libana Taboada
- Edurne Albizu
- Aitor Moyua
- Anselmo Astiazaran
- Antton Alberdi
- Francisco Aizpurua
- Josean Mendizabal
- Unai Asurmendi
- Iñaki Iturrioz

Denei ere nire eskerrak eman behar dizkiet, erakutsitako prestutasunagatik eta eskainitako denboragatik.

Beren parte-hartzea lortu ez dugun horiei, lehenik eta behin barkamena eskatu nahi diet, ekitateaz ari den lan honek ez duelako behar beste ekitaterekin lan egitea

lortu, bereziki udal txikien ahotsa isilduaz. Ez da gure asmoa izan, baina hori izan da errealitatea. Edonola ere, zaudete ziur aukerak izango ditugula bide honetan denek artean Gipuzkoa *EkitAktibo* bat eraikitzen joateko.

g. Lanaren antolaketa

Lanaren antolaketari dagokionez, hiru atal nagusi ditu, hiruak ere, ekarpen guztiak aztertu ondoren, zentzu gehien duena delakoan.

Horrela, lehenik eta behin, *Kirol ohituren diagnosi*. *Ba al dakigu nondik ekiten diogun gizarte EkitAktibo baten sustapenari?* atala daukagu. Bertan, azterturiko udalek kirol jardueraren inguruan egindako diagnosi formalak, zein informalak jasotzen dira.

Segidan, *Egungo jardunbide arautuak*. *Zein erreminta, nola, eta zeinen laguntzarekin ari gara baliatzen?* atalean, ordenantzak, diru laguntza oinarriak, hitzarmenak, arautegiak eta eragile politiko ezberdinen esperientzia informalak ere lantzen dira.

Hirugarren atal nagusi modura *Etorkizun "EkitAktiboa" eraikiz* atala daukagu. Bertan, egun hainbat udalerrik abian jarritako kirol plan estrategikoak, zein plan estrategiko orokorretan kirolari buruz egindako aipuak, lantzen dira.

Azkenik, behin-behineko hausnarketa pertsonal bat egiten dut. Behin-behinekoa, lan honen modura, (berr)eraikitzen doan gogoeta eta lanketa bat delako.

Lanaren eranskin modura (*I. eranskina*), jardunbide arautuen analisia jasotzen da bere osotasunean.

2. Kirol ohituren diagnosis. Ba al dakigu nondik ekiten diogun gizarte *EkitAktibo* baten sustapenari?

Geroz eta zailagoa da kokatzea zeintzuk diren kirol egiten ez dutenak.


Zeren esan daiteke XXX oso herri aktiboa dela, zentzu horretan ez dakit inor gelditzen den hor parte hartzen ez duenik.

Elkarrizketatu batek esana

Proiektu honek Gipuzkoa aktiboago bat lortzea helburu duen heinean, nondik hasten garen jakitea ezinbestekoa da, eta ez zentzu orokor batean, ikerketa gehienek egiten duten moduan, baizik eta perspektiba *EkitAktibo* batetik pisua duten dimentsioak kontuan hartuaz baizik.

Atal metodologikoan aipatu bezala, lan guztiek argi erakusten dute pertsonen errealitatea baldintzatzen duten dimentsioak, labur esanda, bost direla: adina, generoa, klase soziala, etnia eta osasun psikofisiko bezala izendatu duguna (ikusi **3. irudia**). Denak ere, bakarka eragin baino, elkarren artean eragiten dute norbanakoen bizikaltatean.

3. irudia: Gizarte desberdintasunarekin loturiko dimentsio sozioekonomikoak.



Gizarte *EkitAktibo* horren helburuak, gainera, behartzen gaitu diagnosiak tokian tokikoak izatera, 2013ko Euskal Osasun Inkesta¹ (jada 2018koa abian da) edo Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen 2017ko Kirola eta Jarduera Fisikoaren ekarpenak, baligarriak direlarik, nola ez, gizarte dinamiken trazu handiak hartzeko, baino ez tokian tokiko errealitatea ezagututa esku-hartze eraginkorrak diseinatzerako garaian.

Zentzu horretan, Gipuzkoa mailako diagnosi formal propiorik ez da detektatu, ez tokian tokikoa, ez orokorra, Donostiako Udalak egiten duen kirol ohituren ikerketa salbu (genero eta adin dimentsioak aztertzen dituen), eta hainbat herritan, plan estrategikoak garatze aldera edo urteko memorietan egin diren praktika erakundetuen analisiak salbu (Errenterian, Arrasaten, Pasaian, Bergaran, Azpeitian, Ordizian, Zumaian, Astigarragan eta Orion aurkitu ditugu horren adibideak). Hau da, ez dago modu sistematiko batean egindako lanketa kuantitatibo zein kualitatiborik, ez perspektiba *EkitAktibotik*, ez eta perspektiba orokor batetik, aipaturiko salbuespena izan ezik.

Honek, esku-hartze politiko terminoetan, erantzun gabeko galdera zabal bi jartzen ditu mahai gainean: ***zeintzuk dira Gipuzkoako herritarren kirol ohiturak? Eta zein mailatan eragiten dute aipaturiko dimentsio sozioekonomikoek ohitura horietan?***

Diagnosi zehatz hauek garatu gabe, oso litekeen arrisku bat da, oharkabean bada ere, inaktibitatea azaltzen duten klabe nagusi batzuk galtzen egotea, eta ondorioz, baztertze dinamika orokorrak eragiten dituen prozesuak birsortzen aritzea. Zer esanik ez, kontuan hartzen badugu, kirolaz ari garenean, eragileetako asko erakundeturiko eskaintzaz (kirol instalazioetan ematen dena edo udalak lagundutakoak direnak, federazio, klub edo eskola-kirolean) ari direla, ez herrietan ematen den kirol praktika guztiaz.

Hau bereziki garrantzitsua da kontuan hartzen badugu gurean gipuzkoarrak oso aktiboak gareneko ustea oso zabaldua dagoela. Horrek, uste guztiek bezala, badu bere egiazen parte, baina badakigu usteak erdia ustel izaten direla ere, eta inaktiboak diren horien errealitatea ezkutatu ahal digu uste horrek.

a. Diagnosian sakontzen

Gogoeta hau bereziki nabaria izan da kirol eragileekin izandako elkarrizketetan. Oro har inork gutxik jartzen du zalantzan gipuzkoarrak aktiboak gareneko ideia hori, baina dimentsio sozioekonomikoak mahai-gaineratu ahala, argi eta garbi azaltzen hasten dira ñabardurak eta gogoetak.

Sakontze honek, aldagai sozioekonomiko ezberdinek kirol ohituretan duten eraginaren gaineko diagnosia aberastu egiten du. Ikus dezagun dimentsio bakoitza banan bana toki erakundeen begien argitara, kirol ohiturei eragiten dieten arazo nagusiak azalaraziz.

¹ <http://www.euskadi.eus/osasun-inkesta/hasiera/>

i. Adina

Nik beti esaten dut, hasi zen hirugarren adina, eta ja doia laugarren eta ia-ia bosgarren adinera.

Elkarrizketatu batek esana

Toki erakundeetako kirol eragileek, modu oso zabalduan, beren herrietako herritarren kirol ohituren diagnostika egiterako garaian, adinaren eta generoaren arabera egin ohi dute lehenik eta behin, modu nabarmenean.

Adinaz mintzo direnean, arazo nagusi bi ikusi ohi dituzte: batetik, nerabezeroan, 14-16 urteen bueltan hasi, eta helduaroa bitarte, behin kirol egiturak, eskola-kirola tarteko, amaitzen direnean, ze nola kirol jardueran gutxitze bat ematen den, bereziki neskegan; eta bestetik, hirugarren adinari dagokionean, bereziki osasun psikofisiko arazoak eta gaztaroan kirol ohiturak ez barneratu izana tarteko, kirol jarduerarik apenas egiten duten.

Lehenengoari dagokionean, parte-hartze murrizketa honen inguruan, bada murrizketa baino, eraldaketa dela esaten duenik. Hau da, ohiko kirol jarduerak uzten direla, bai, bereziki neskek, baina bestelako jarduerak egiteko. Edozein kasutan, zabaldua dago adin tarte hori arte kirol jarduera nahiko zabaldua dagoelako ustea.

Hirugarren adinari dagokionean, egia da, elkarrizketatutako batek esaten duen modura, jadanik laugarren eta bosgarren adin batez ere mintzatu gaitzkeela, populazioak bizi duen zahartze prozesua bitarteko, eta noski, osasunaren gainbeheraren eraginez, kirol praktikarako joera murriztea aurrez kirol ohitura mugatuagoak izan zitezkeen populazio talde batean.

Nabarmena da, edonola ere, hirugarren adinekoen artean paseatzeak duen garrantzia, modu egituratu batean, Tipi-tapa bezalako programen baitan, zein beren kasa.

Nolanahi den ere, gure buruari galde geniezaioke ea zer gertatzen den adinaren arabera, dimentsio etnikoa edo eta klase soziala kontuan hartuz gero. Egia da, adinari dagokionean, generoaren kasuan bezala, apenas hartzen dela kontuan beste dimentsioekin izan dezaken —eta duen— elkar eragina. Gehienez jota ere, adina eta generoa batera aztertu ohi dira.

ii. Generoa

egiaztatuta daukagu talde mistoak egitearekin batera
nesken beherakada nabarmena dela
Elkarrizketatu batek esana

Generoaren araberako kirol ohituren diagnosia adinari oso lotua joan ohi da, eta osasun psikofisikoarekin batera, eragileen arreta gehien deitzen duten dimentsioak dira.

Partekaturiko diagnosi nagusiak dira jada adinaren atalean aipaturikoak: ze nola neskek nerabazarotik helduarorako tarte horretan kirola utzi, edo hoberenean beste modalitateak praktikatzen hasten diren, baina baita ere, gizonezkoek “ohiko” kirola gehiago egiten dutela emakumeek baino, hau da, taldekakoa, konpetitiboa, adin tarte guztietan.

Aldi berean, badirudi adin batetik aurrera emakumeek antolaturiko eskaintzan gizonezkoek baino parte-hartze gehiago dutela, eta bigarren hauek beren kasa, gimnasioan eta, gehiago ibiltzen direla. Horren zergatiak anitzak dira, baina galdera garrantzitsu bat ez dute azaleratzen, hau da, zer gertatzen den gizonak eta emakumeek kirol testuinguruak elkarrekin antzeko neurri batean ez partekatze. Inor gutxik jartzen du kolokan eredu hau. Badirudi “naturala” dela gizonak batetik eta emakumeak bestetik ibili nahi izatea. Baina zer dago horren atzetik eta, noski, ze ondorio ditu?

Hau lantzerako garaian, gainera, badirudi eskola-kirolean ere “onartu” egin dela nesken partaidetza bermatu asmoz talde mistoen ereduak ez duela funtzionatu:

“(…)desegin genuen talde mistoen modelo hori eta bueltatu ginen berriro klasikora. Eta handitu genuen partaidetza, emakumezkoen partaidetza.”

Elkarrizketatu batek esana

Aldi berean, espazioen okupazioari dagokionez, hainbeste atera ez bada ere, genero ezberdintasunaren inguruko isiltasun hau nahiko esanguratsua delakoan nago, susmoa dudalako desberdintasuna naturalizatu izanaren ondorio delako. Nork jartzen du zalantzan belar naturaleko zelaia gizonezkoen lehen taldeak erabiltzea? Zaintza berezia behar duen heinean eta, ondorioz, erabilera mugatua, hau gizonezkoen taldeei mugatzea onargarria da?

Gimnasioek ere gizonezkoen espazioak dirudite eta, egia bada ere emakumeak badutela sartzea, zergatik ez dute egiten gizonezkoek bezainbeste? Ze mugak sentitzen dituzte?

iii. Osasun psikofisikoa

hemen oso normalizatua dago, hona datoz elkarte askotako taldeak kirola egitera. Eta euren edo hauen instalazio erabilera normalizatua dago izan behar dan moduan. (...) Esan nahi dut, ez dela ikusten kasu horretan gauza berezi bat moduan, baizik eta gauza arrunta moduan.

Elkarrizketatu batek esana

Oro har, badirudi elkarrizketatu ditugun herrietan, desgaitasunen bat duten pertsonen parte hartzea kirol instalazioetan oso esanguratsua dela. Are gehiago, badirudi oso errotua dagoen errealitate bat dela, hein handi batean osasun jarduera edo jarduera terapeutiko moduan, eta kiroldegietan zentratua.

Gainera, nahiz eta esperientzia ezberdinak dauden, badirudi espazioen partekatzea bilatu ohi dela eta, edonola ere, badagoela hausnarketa bat egokiena modu banandu edo integratu batean jardutearen inguruan.

Bestelako erronka dira bakarrik bizi diren pertsonak, depresio koadroekin askotan, baina zaila da jakiten zein den errealitatea. Elkarrizketatu batek dioen moduan:

Ikusi dugu hor gizarte zerbitzuetan nola dagon jendea arriskuekin: ba bakardadean, depresioan... eta nahi dugu horra iritsi. Horra oso zaila da noski, hori, lehenengo jakin egin behar dugu ze poblaziño den, ze normalean egoten dira ezkutatuta edo etxetik irten barik.

Elkarrizketatu batek esana

Ez da erraza diagnosi sakoneko hori egitea, baina oso litekeena da osasun psikofisiko terminoetan kalteberatasun egoera esanguratsuagoan dauden pertsonak kirol praktika jarrai eta osasungarri batetik urrunago egotea.

iv. Klase soziala

Udal kiroldegia izanda, ba prezioak egia esan behar da oso merkeak direla, orduan horrek errazten du ba edozein etorri ahal izatea.

Elkarrizketatu batek esana

Klase sozialaren arabera alderik apenas dagoela sumatzen da. Gehientsuen arabera, muga horiek gainditzeko mekanismo ezberdinek, hobariak eta diru laguntzek bereziki, muga material hori nabarmen leuntzen dute.

Gainera, egoera larrietan ere, gizarte edo ongizate zerbitzuek eskatzen dutenean, ez da inolako oztopo materialik jartzen.

Edonola ere, oztopo materialez gain, oztopo immaterialek, lotsa edo erreparoa, ezjakintasunak, ezintasunak eta abarrek, zer-nolako muga ekar dezaketean ez da inolara mahaigaineratzen. Ez da planteatzen zenbateraino zaila izan daitekeen egoera larri eta ez hain larrietan egon daitezkeen pertsonentzako laguntza ekonomikoa eskatzea, akaso, bereziki, herri txikietan.

Zentzu horretan interesgarria litzateke jakitea onuradun potentzialetatik zenbatek eskatzen dituzten kirol abonua lortzeko diru laguntzak, eta eskatzen ez dutenek zergatik ez duten egiten jakitea.

Aldi berean, gaitasun ekonomikoaz gain, klase sozialaz ari garenean, lan egoeraren arabera hausnarketa eta diagnosi bat egitea ezinbestekoa litzateke, kirola egiteko arazo nagusienetako bat, lan mota edo lan baldintzak (prekarioak) izan ohi baitira seguru asko.

Hori, gainera, zuzenean lotu ohi da beste dimentsioekin, bereziki adinari dagokionean gazteen langabeziari lotua, generoari dagokionez bereziki emakumeei eragiten dielako, eta etniaren perspektibatik, etorkinek bereziki pairatzen baitute egungo lan-merkatuaren prekaritatea.

v. Etnia

Nik adibidez, musulmanak edo marokoarrak edo... nik bai ikusten dut hori, ez datoz gehiegi, gutxi, baina etortzen direnak gizonak dira, orduan emakumeak ez dituzu ikusten.

Elkarrizketatu batek esana

“(...) Gehienak musulmanak dira, gehienak etortzen dira gizonak, eta emakumeak etortzen dira umeei laguntzera, baina bestela beraiek kirola egitera ez dira etortzen.

Elkarrizketatu batek esana

Dimentsio guztien artean, zalantzarik gabe, hau da modu “espontaneo” batean apenas aipatzen den dimentsioa. “Ez da harritzekoa”. Seguruenik, kirol eragileek baliatzen dituzten erreminten irizpideetan ez azaltzeak berebiziko eragina du dimentsio honekiko begirada hain landua ez egote horretan. Badirudi ez dugula hor inolako arazorik ikusten, baina, ziurrenik, begira ez gaudelako.

Salbuespenak dira Donostiako Udalaren *Kirolerako hiri bat: gogoeta estrategikoa (2018-2020)*, Bergarako Udalaren kirol arloko plan estrategikoa (2018-2021) eta Zumaiako plan estrategikoa (2015-2025), planei dagokionean; eta Usurbilgo Udaleko emakumeen eta gizonen berdintasuna kirol jardueretako eta kirol egokitutako diru laguntza deialdia arautuko duten oinarriak (GAO 195 zenbakia, 2017ko urriaren 11), etorkinak eta etnia ezberdinak aipatzen dituztelako.

“(...). Etorkinen kasuan, bertakoek agertzen duten baino partaidetza maila txikiagoa sumatzen da eskola kirolean; bai ohitura edo arrazoi kulturelek zein arrazoi ekonomikoek azaldu dezakete alde hori

Begarako Udalaren kirol arloko PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2021

Egia da, identifikazio honek etiketatze arrisku bat ekar lezakeela, baina errealtate ezberdin hauek kontuan ez hartzeak, beren beharrak isilaraztea ere ekar lezake.

Hainbat herritan pakistandarrak, ekuadortarrak, marokoarrak, senegaldarrak eta errumaniarrak aipatzen dira. Aurreneko bien kasuan beren kasa aritzen direlako kirolean bereziki, pakistandarrak kriketean, ekuadortarrak *ecuavoleye*an, emakumeak eta gizonak batera. Marokoarren kasuan, gizonezkoak bereziki ibiltzen direla esaten da,

eta senegaldarren eta errumaniarren kasuan “normal” ibiltzen direla aipatzen da, nahiz eta gizonez bakarrik ari direlakoan nagoen.

Aipatzen dira ere, askoz gutxiago, txinatarrak eta nepaldarrak. Aurrenekoen kasuan ez direlako kirol guneetan ez eta kirola egiten ikusten, eta nepaldarren kasuan, mahai-tenisera jolasten aritze direlako beren kasa.

Ijitoak ere aipatzen dira. Elkarrizketatutako batek dion moduan:

“(…) ijitoen munduan, kirolarekin bai dago aparte bezala. Asko kostatzen zaie. Eskola publikoetan batez ere eta hor daudenean umeak eta animatzen ditugu etortzera, ez daukate hori ona den pertzepziorik, orokorrean. Orduan horiek bai, kolektibo hori, diruarena bai izango da baina utzita ere ez zituzten bidaltzen

Elkarrizketatu batek esana

Bada kirol ohituretan eragiten duen aldagai bat, islamarena, apenas ezagutzen duguna eta berebiziko eragina duena, gainera, adinari zein generoari dagokienean. Edonola ere, kirol ohituretan eragin zuzena duelakoan daude elkarrizketaturiko kirol eragile gehienak.

Interesgarria da, perspektiba etniko batetik, herri kirolen gainean apenas egiten dela aipamenik, eta egiten dena, folklorismo kutsu batekin egiten dela.

Urtean zehar herri kirolei lotutako ekintzak igual 20 pasa izango dira; badela! Baina pixka bat kanpora begira. Edo apustuak direlako bi aurkarien artean, edo jendea ekartzera ere lehiak, ikuskizun modura, txapelketak jendea etorri dadila eta horrek ematen dion bere bizimodua.

Elkarrizketatu batek esana

Herri kirolek gaiak, gainera, “gure” eta “beren” praktiken inguruko gogoeta bat jartzen dute mahai gainean, eta akaso, herri kirolek “hiri kirolerako” bilakaera moduko batean gauden honetan, nortasun eraikuntzarako zer nolako papera jokatu behar duten pentsatu beharko genuke.

b. Kirolaren izenaz eta izanaz. Krisi sortzaile batean murgilduta ote gaude?

Honaino aipaturiko dimentsio sozioekonomikoez gain, egindako elkarrizketa askotan, kirolaren ideiak berak sortzen duen kirol jarduerarekiko baztertze indarrak hitz egiten da.

izeneko krisi bat daukagu. Ni ez naiz kirolarekin identifikatzen, zeren nik nahi dut gehiago, kirolak ja funtzionatzen du, federatuen ehuneko hogeia, eta denbora kentzen dit ehuneko laurogei eta hamabosta, lan guzti...

Elkarrizketatu batek esana

Eta akaso, izenaren krisia, izanaren krisiarekin bat dator. Krisi konstruktiboa, hori bai, baina orain arte kiroltzat hartu izan den lehiakortasun edo jokoaren ideia zentrala kolokan jartzen duena jolasaren, osasunaren eta bestelako argudioen alde. Kirolaren zentroaren eta periferiaren balioak eraldatzen doaz, baina ez antza egiturak, eta horrek kirol ohituren eta honen kudeaketaren gaineko ondorio ezberdinak ditu, sustapenerako baliatu izan diren ohiko lanabesak auzitan jartzeraino.

3. Egungo jardunbide arautuak. Zein erreminta, nola, eta zeinen laguntzarekin ari gara baliatzen?

Ze askoz ere errazagoa litzateke egungo balitz, ba pakistandarrak. Etortzen ziren, beren eskaerak egiten zituzten eta beren eskaerei erantzun, dena onartuz edo zati bat onartuz baina erantzun. Baina jakina, interlokuziorik ez dagoenean oso zaila da jakitea zein den arazoa be.

Elkarrizketatu batek esana

Elkarrizketatu honek nabarmen mahai gaineratzen du egungo jardunbide nagusienetako bat. Eskaerak daudenean erantzun egiten zaie hein handi batean. Alabaina, zer gertatzen da eskaera edo solaskiderik ez daukaten pertsonekin?

Gizarte *EkitAktibo* baten bilaketa honek, “txikia” nola lagundu pentsarazi behar digu. Eskatzeko aukera edo gaitasuna ez daukan horri nola “entzun”. Debatea ez da erraza, eta argi eta garbi espazio publikoaren kudeaketarentzako erronka itzela adierazten du. Gehiengoarentzat ari gara lanean edo guztientzat? Dilema hau behin baino gehiagotan mahai-gaineratzen dute elkarrizketatuek:

“(…) kanpotar edo etorkin batek, edo kulturalki ez dakit zer batek ba ez baldin badiogu guk erraztu egun horretan igerilekura joatea, baina lortu baldin badut baten kontra 200 pasatzea igerilekutik egun horretan, ba aukera horretan zalantzarik ez daukat.”

Elkarrizketatu batek esana

Honek badu zer ikusia egunerokotasunak sortzen duen (indi)gestioarekin; bi aurpegi edo irakurketa izan ditzakeen kudeaketa arazoekin. Alde batetik, errutinak ez digulako egoera bereziak ikusten uzten, baina baita ere, egoera berezi hauek gertatzen direnean, bere “txikitasunean”, ez ote diguten denbora gehiegi hartzen.

oso gutxi gertatzen diren egoera batzuetarako ematen da kristoren dedikazioa, denbora...

Elkarrizketatu batek esana

Eta noski, baliatzen ditugun egituren gaineko hausnarketa exijitzen digu horrek, termino *EkitAktiboetan*. Egitura guztia aldatu behar da errealitate hauei erantzuteko?

Askotan igual da ez sistema guztia egokitu, baizik eta ikusi, ze demanda daukat edo ez daukat, demanda ez da gertatu, eta orduan ikusi nola jokatu, ez? Zeren batzuetan halere beldurra ematen du, hor debate handia dago, inklusioaren baitan. Gauza batzuetan posible da, beste egoera batzuetan ez. Orduan sistema guztia aldatu behar da? Ez? Hor ere ez daukat hain argi, baina bai detektatuta eduki zer egon daitekeen toki bakoitzean, eta ikusi nola egokitu,

Elkarrizketatu batek esana

Baina ez badugu errotik eraldatzen ez ote dugu gizartean gertatzen diren arazoak birsortzeko, eta are okerrago, areagotzeko arriskua, egitura egituratzaile bilakatzen garen heinean? Debate konplexua, zinez. Elkarrizketatuak dioen moduan, zeharka bada ere, ziur asko saiakera jarraian dago *EkitAktiboa* izateko gakoa.

Udalerrri bakoitzeko egitura, zentzu zabalean ulertua, baliabideak, kirol saila izatea nola kiroldegia izan ala ez, formalki zein informalki, bakoitzaren kirol politikan eragina du. Nola bestela. Edonola ere, aspektu horietan sakontzea ezinbestekoa bada ere, gure proiektu honen aukeretatik harago geratzen da ezaugarritze hau.

a. Erreminta formalak dimentsio sozioekonomikoen perspektibatik

Jarraian, azterturiko udalerriek baliatzen dituzten erreminta formalen analisia aurkeztuko dugu, aldagai sozioekonomikoen argitara. Ze nola laguntzen saiatzen ari dira udalerrri ezberdinak beren erreminta formalen bitartez dimentsio sozioekonomikoen kirola egiteko ekar dezaketen traba baretzeko?

Erreminta horiek, beren irizpideetan, garatuagoak edo ximpleagoak izan daitezke, baina, oro har, dimentsio berdintsuak baliatzen dituzte. Horrek, zalantzarik gabe, erreminten kudeagarritasunean eragina du. Gai honek berebiziko garrantzia du ekimenen eraginkortasuna neurtzeari dagokionean, eta ez da kontu makala. Memoriak eta diru laguntzen justifikazioek aldagai batzuk jasotzea eskatzen dute, baina egokienak al dira ekitatea ebaluatzerako garaian, eta ondorioz, egindakotik ikasteko? Elkarrizketen arabera pentsamendu estrategikorako tarte gutxi uzten du kudeaketak eta, ondorioz, jasotzen den informazioak kontrol mugatu baterako baino ez du balio.

Aipagarria da baita ere, nire ustetan, ze nola kasu denetan elementu komuna den prezio horietaz eta laguntza ezberdinez gozatu ahal izateko, herrian bertan erroldatua egon behar dela (Buruntzaldean izan ezik, non modu mankomunatu batean erabili daitezkeen kirol baliabideak). Arrazoizkoa dirudi, baina egungo lan eta aisialdi dinamikak ze nolakoak diren ikusita, non ohikoa den bizilekutik kanpo lan egitea, bizi

diren herrian erroldatuak ez dauden pertsona kopurua, eta bestelako kasuistika ezberdinak kontuan harturik, akaso interesgarria litzateke baldintza hauek malgutzera edo eraldatzea.

Lehen gogoeta orokor hau eginda, ikus ditzagun dimentsio ezberdinak banan bana.

i. Adina

Adinaren dimentsioak nabarmen erakusten du ze nola adingabeen tartea (haur eta gazteak bereizi ohi direlarik baina adin tarreak baliatuz) eta hirugarren adinekoen adin tarreak hartzen diren lagundu beharreko tarte nagusi bezala.

Adingabeen kasuan, laguntzak islatu ohi dira abonuan zein sarreran prezio apalagoetan, gehienetan familia abonuari lotuak. Unibertsitate ikasleentzat ere erraztasun ekonomikoak ematen dira abonutan zein sarreratan.

Adingabeen tartean, gainera, ez da ahaztu behar eskola-kirolak udalerrri gehienetan jasotzen duen zuzeneko zein zeharkako laguntza, diru laguntza zuzenen bitartez zein doako azpiegitura uztearen bitartez, bereziki.

Edonola ere, adin tarte horren interesa, zalantzarik gabe, kirol ohitura osasuntsu batzuk bereganatzeko prozesuan oinarritzen da, momentuan zein etorkizunera begira duen garrantziagatik.

Adinekoen kasuan, beren erretiratu zein pentsiodun egoeran kokatu ohi da laguntzeko beharraren zergati nagusia, egoera horrek ahalmen ekonomikoan duen eraginarengatik; baita ere, adinari loturiko osasun arazoak baretzeko, kirolaren behar terapeutikoa garrantzizkotzat jotzen da adin tarte honetan.

Nolanahi ere, gai horren inguruan, erretiratuen laguntza beharraren gainean, badago elkarrizketatueto batego mahai-gaineratzen duen debatea; bere osotasunen txertatzen dut:

“(…) paper bakarra eskatzen dela, dela erretiratu baldin bazara... Nik kirol teknikari bezala esaten dut: prezioa hau da. Eta prezioa da helduena. Eta hortik egiten ditut beste guztiak. Orduan etortzen denean jendea: 'pentsioduna naiz'. Bale, justifikatu pentsioduna zarela, eta beste prezio bat daukazu. Baina eurak pentsatzen dute hori dela euren prezioa. Eta ez dira konturatzen teorikoki orain dela urte asko egin ziren erabaki horiek hartu, eta nik politikariei ere jarri diet mahai gainean esanez ba horiek ere berraztertu behar direla. Zeren, beharbada, orain dela 15 urte, erretiratuek diru gutxiago kobratzen zuten, edo oso pentsio baxuak zituzten. Baina orain, zuk hartzen badituzu erretiratu batzuk suerte eduki dutenak, ondo kotizatu dutenak eta, gazteak baino hobeto daude heldu aroan. Zuk eta nik baino gehiago dute hil bukaeran. Etxea pagatuta daukatelako, umeen eskola ez daukatelako... eta orduan ba hor egin hausnarketa bat eta hor

kontuhartzaitzarekin ere hitz egitekotan nago. Baina gero denok lanez gainezka daude eta...

Elkarrizketatu batek esana

Ikusi ahal den moduan, debatearen muina erretiratu eta pentsiodunen “beharraren” gainekoa da. Egia da pentsiodun eta erretiratuen errealitatea ez dela homogenea inondik ere, baina bai zer pentsatua ematen duela ahalmen ekonomikaren perspektiba hotzetik begiratuta, langabezia dauden pertsona asko, esaterako, egoera zinez zaurgarriagoan egon litezkeelako.

Horrek gogoeta bat eskatzen du zalantzarik gabe, lehentasunezko beharrea dauden taldeen egoerei erantzuteko irizpideen gainean.

ii. Generoa

Generoaren dimentsioak berebiziko pisua du ekitate perspektibatik begiratuta. Are eta gehiago, elkarrizketatutako askok, ekitatearen gaia planteatzerako garaian, generoaren perspektibatik aztertu dute, ekitatea genero berdintasun bezala ulertuta.

Zalantzarik gabe, genero perspektibak berebiziko pisua du ekitatea lantzeko egungo jardunbide arautuei dagokionean, bereziki diru laguntzetan eta hitzarmenetan, non, esaterako, lizentzia federatuak zein eskola lizentziak baloratzerako orduan, gizonezkoenak baino gehiago baloratu ohi diren emakumezkoenak, edo nesken kirol taldeak eta txapelketak bereziki laguntzen diren. Berriki diskriminazio positibo hau monitoretara eta kirol egituretara ere zabaldu da, espazio horietan emakumeen presentzia handitzeko xedez.

Interesgarria litzateke jakitea zenbateraino leheneste formal hauek eraginkorrak diren ala ez beren helburuen lorpenean. Hau da, emakumezkoen lizentzia federatuak gehiago baloratzeak emakume gehiago erakarri ditu kirol federatura?

Horrekin jarraituz, interesgarria litzateke hausnartzea ze nola egokitzen den sexuen arabera taldeen banaketa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak 24.2 artikuluan xedatzen duenarekin: “euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei”. Akaso emakumeen eta gizonen aukeraketa eta jarduna ez da sexuen arabera egiten? Ez naiz jurista eta ez dut irizpide teknikorik legearen esanahia sakonean aztertzeko, baina sexuen arabera kirol sisteman oso errotuak daudela esango nuke, eta inor gutxi jartzen ditu auzitan sexuen arabera antolaketak, hasi eskola-kirolean eta bestelako mailetan jarraituta.

Generoaren ikuspuntutik beste gai garrantzitsu bat da komunikazio ez sexistarena. Zentzu horretan, diru laguntzen betebeharretan dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ahoz zein idatziz, hizkera sexista debekatzen da.

Halaber, emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak zabaltzen dituzten irudiak ekiditea eskatzen da, bestelako irudi positiboagoak sustatzearen alde.

Gai sentibera da genero biolentziarena, zalantzarik gabe. Horren inguruan bi ekimen nabarmentzen dira. Batetik, genero indarkeria pairatu duten emakumeen kasuan, zabaldua ez badago ere, tarifa sozialen onuradun izan ahal izatea kirol abonuetan; eta bestetik, diru laguntzei dagokionez, debekatu egiten zaie eskaeretan parte hartzea sexu arrazoiengatik bazterkerian erori izanagatik zigor administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei, eta Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen arabera debeku horrekin zigortuta daudenei.

Generoaz mintzo garenean, bada alboratua geratu ohi den errealitate bat, edo hobe esanda, errealitate batzuk, LGTBIQ+ena hain zuzen ere. Elkarrizketatu batek hala zioen, erantzun gehienen eredugarri:

nik dakidala ez dugu jaso inoiz halako ez ekarpenik, ez gauza onik, ez gauza txarrik, ez esperientziarik... nik dakidala ez. Baina ez gara jarri ere horretara begira. Bai estandarrak diren patroik horiek errepikatzen ditugu beti. Eta ez dakit, ez dugu jarri burua horretan, egia esanda.

Elkarrizketatu batek esana

Begi heteronormatiboak tarteko, ahaztu egiten gara gizon-emakume, eta bereziki heterosexuala den eskema normatiboan eroso ez dauden pertsonak badaudela. Kiroldegietako egitura fisikoak eta arautegiak nabarmen erakusten dute hori. Nesken eta mutilen komun eta aldagelen eskema gailentzen da, eta "horrelako egoera bereziak" gertatu izan direnean, ahal izan den moduan erantzun zaio, borondate onenarekin.

Nolanahi ere, badirudi generoaren kudeaketak kirolean oraindik egun (re)generazio bat eskatzen duela.

iii. Osasun psikofisikoa

Osasun psikofisikoari dagokionez, laguntzak orotarikoak dira eta oso errotuak udaletako jardunbide arautuetan. Laguntza ohikoak instalazio eta abonuen prezio murrizketak zein salbuespenak, kirol instalazioen irisgarritasuna hobetzeko instalazioen eraldaketak, elbarrituen lizentzien balio berezia klubei diru laguntzak ematerako garaian, edo eta monitore laguntzaileak jartzeko diru laguntzak izan ohi dira.

Zerbitzu bereziak ditugu bai fitness programa eta bai uretako programan elbarritasunak dituzten pertsonendako edo arazo funtzional bereziak dituzten pertsonendako baditugu zerbitzu espezifikoa baita ere. Eta horrek ba igual funtzionalitate arazo horiek dituen kolektibo horri ba pixka bat gerturatzeko zerbitzu

batzuk dira, beraiek gerturatzeko kiroldegira eta jarduera fisikora. Orduan horrek bai errazten du, orduan zenbait zerbitzutan, uretakoetan, zerbitzu espezifikotan monitore bakarra da, bat gehi bat monitorea eta pertsona. Ordun hori ere bai, igual kolektibo horretan pixka bat bada ekitate horren aldeko beste zerbitzu bat izan daitekeena.

Elkarrizketatu batek esana

Goraipatzekoa da ze nolako sentsibilitatea sumatzen den desgaitasunen bat duten pertsonetikiko arretan. Hori, esan bezala, jardunbide arautuetan zein elkarrizketaturiko pertsonen hausnarketan argi eta garbi ikusten da.

Edonola ere, badirudi bereziki desgaitasun fisikoren bat duten pertsonentzako egokitzen dela bereziki, bestelako desgaitasunetan ez bezala, nahiz eta egia den espektro autistako eta gaitz mentalen errealitatea ere aintzat hartzen dela. Susmoa dut “disruptiboagoak” izan daitezkeen pertsonen errealitateak kontuan hartzea konplikatuago izatearen ondorio dela.

Ekimen hauetan garrantzizkoa da nolako saiakerak egin ohi diren norabide bikoitzeko integrazio ekimenen gainean. Hau da, desgaitasunen bat duten pertsonak talde normalizatua integratzeko saiakerak, baina baita alderantziz ere; saiakera batean zein bestean esperientzia eta emaitza ezberdinekin.

Osasun psikofisikoarekin jarraituta, arreta deitu dit kiroldegietako arautegietan aipatzen diren azaleko edo bestelako gaixotasun kutsakorrek dituzten pertsonen igerilekuan sartzeko duten debekuak. Arreta deitzen dit zaila egiten zaidalako irudikatzea nola kudeatu litekeen egoera hori “hanka sartzeko” arrisku handirik gabe. Argi dago kutsakorra den gaixotasunen bat duen norbaitek kutsagarriak diren praxiak ekidin beharko lituzkeela, baina, kutsakorra den ala ez, nola baloratu lezake kiroldegiko arduradun batek? Eta horren harira, zer egin kutsakorrek ez diren egoerekin, baina jendearen erreakzio negatiboa sorrarazten dutenekin? Adibide interesgarria da hemen jasotzen dena:

Bai gertatu zaigu pertsona batek psoriasis asko edukitzea; psoriasis ez da kutsakorra, berak ez zeukan arazorik aldatzeko beste jende batekin, baina jendeak bai, arazoa zeukan. Orduan planteatu zigun gaia eta aldagela bat utzi genion. Zeren gure helburua da jende horrek kirola egitea. Jakina, jende guztiak jakin behar du psoriasis ez dela kutsakorra? Eta berak hala egiten duela eta ez dela ezer gertatzen? Desatsegina da baina 'como si uno es calvo y se le va cayendo el pelo...' Orduan guk halako erantzunak ematen ditugu baina...

Elkarrizketatu batek esana

Beste erronka bat gehiago, zalantzarik gabe.

iv. Klase soziala

Klase sozialak kirola praktikatzeko eragiten duen muga samurtzeko erreminta nagusia prezio murriztuen politika da; bai hobari bidez, bai eta deskontu bidez garatzen dena ere. Halakoek ehuneko ezberdinetako murrizketak eragiten dituzte abonuen prezioetan, doakoak izan daitezkeelarik egoera larrietan.

Edonola ere, muga materialak samurtzeko laguntza horiek gogoeta bat eragiten didate. Formalki eta teorikoki egokia badirudi ere errentaren arabera laguntzak ematea, prozedurari begira, zenbat pertsona ez ote da geldituko eskaera egin gabe, horrek dakarren tramitazioagatik eta, horri loturik, tramiteak sortu lezaken lotsagatik? Hau da, zenbateraino, muga materiala murrizteko dauzkagun mekanismoak ez ote dira horren eragile, muga immaterialek sortu lezaketan trabagatik? Daturik gabe ari naiz, noski, eta hau argitu beharko litzatekeen kontu bat da. Hobari zein murrizketaz baliatu litezkeen erabiltzaile potentzialetatik, zenbat baliatzen dira hauetaz? Egiten ez dutenek zergatik ez dute egiten?

Aipagarria da nolako aldea dagoen ordaintzeko formulen artean. Gehientsuenek urteko zein lauhileko ordainketa eskatzen dute, gutxi batzuek ahalbidetzen dute beste tarte malguagokoen aukera. Akaso interesgarria litzateke, hainbaten ekonomiak duen izaera aldakorra tarteko, horren gaineko malgutasuna ere areagotzea.

Bada beste gogoeta bat, hobariak eta deskontuek abonatu izateko balio dute, baina antolaturiko ikastaroetan edo alokairuetan ez da inolako laguntzarik aurkitzen. Perspektiba honetatik, lehenengo eta bigarren mailako erabiltzaileak ez ote dauden galdetu beharko genioke gure buruari. Horrek inplikazio ugari ditu. Besteak beste, monitore gabeko kirolariak diren heinean, jarduera ez osasungarri bat egiteko arriskua areagotu egin daitekeela.

Nolanahi ere, herritarrez ala bezeroez ari garen pentsatu beharko genuke, beraiengana iristeko ikuspegia zeharo aldatzen baita, kirolaren izaera soziala auzitan jarriaz, pribilegio eskusibo modura irudikatuz. Arautegi batean jasotzen den moduan:

CATEGORÍAS PRODUCTOS ACTIVIDADES DIRIGIDA:

Definición intereses y objetivos para la empresa en cada Categoría o nivel.

CLIENTES V. I. P.

Es el objetivo máximo y la punta de la pirámide para todos los clientes que están inscritos en Actividades

Udalerrri bateko arautegian jaso

Diagnosian aipatzen genuen moduan, gaitasun ekonomikoaz gain, klase sozialaz ari garenean, lan egoeraren arabera hausnarketa eta diagnosi bat egitea ezinbestekoa litzateke, kirola egiteko arazo nagusietako bat lan mota edo lan baldintzak (prekarioak) izan ohi baitira. Zentzu horretan, ordutegi politika akaso birpentsatu liteke: zer nola uztartu gurasoen ordutegiak seme-alaben eskola-kiroleko ordutegiekin, eta abar, eta abar. Argi dagoena da aisialdiaren eta lan denboren arteko harremana ez dela berdina klase sozialaren arabera.

Azken aipamen labur bat, bere txikitasunean deigarria egiten zaidalako. Tolosak bakarrik aipatzen du diru laguntzetan (kirolerako diru laguntzak erregulatzeko ordenantza, Tolosako Udalaren kirol aurrekontuaren kargura) askatasuna mugatua duten pertsonei zuzenduriko programak baloratzea diru laguntzen irizpideetan:

Espetxeetan kirol-programak sustatzea, presoen gizarteratzea lortzeko.

Aipaturiko oinarrien 4. orrialdean

Jakina da preso dauden pertsonen gehiengoa klase baxukoak izan ohi direla eta, baztertu dituen gizarte horretan berriro ere txertatzeko, kirola erreminta ezin hobea izan daitekeela. Agian adibide ona da Tolosakoa.

v. Etnia

Eskola-kiroleko kanpaina adibidez urte amaieran egiten dugu: 'beno, eta zer egin behar dugu, zortzi hizkuntzatan atera? Hori da irtenbidea?'

Elkarrizketatu batek esana

Zapiak eta hori, (...). Musulmanak, ez musulmanak... (...). Nik ez daukat batere argi. Nik uste dut zauden tokian egokitu behar zarela zauden tokira.(...) Zeren errespetatu behar da bai, baina... Errespetatu behar gara, hemengo ohiturak hala dira.

Elkarrizketatu batek esana

Dimentsio ahaztua esango nuke. Mugen analisiak kutsu materialista bat duen heinean, badirudi, klase sozialaren kasuan esan bezala, aspektu immaterialen baitan kokatu litezkeen aspektu etniko-kulturalak ahaztu egiten direla; behintzat "besteak" direnekiko. Topatu dudan salbuespen bakarra Usurbilen aurkitu dezakegu. Bertan 2017. urteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasun kirol jardueretako eta Kirol Egokitutako diru laguntza deialdia arautzen duten oinarriek (GAO 195 zenbakia, 2017ko urriaren 11) zera diote 8. artikuluan (*Diru laguntza motak eta baloratzeko irizpideak*):

5. Parte hartzaileak desberdintasun handiagoko posizio eta baldintzetan egon litezkeenak badira (etorkinak, ijitoak, indarkeria matxista jasandako emakumeak,...) aurreko puntuaketari puntu hauek gehitu dakizkioke: gehienez 10 puntu.

Aipaturiko oinarrien 5. Orrialdean

"Besteak" diot, aipagarria delako, esaterako, euskarari ematen zaion garrantzia. Hala diru laguntzetan, hitzarmenetan zein arautegietan, nola kirol monitoreen kontratazioan, nola bestela ere. Eta argi dago bide bat egin dela:

Hizkuntzarenarekin ere zer esanik ez. Guk hasiera batean, laurogeiko hamarkadan aerobika emateko begirale elebidun bat eduki ahal izatea zen loteria tokatzea bezala. Eta hortxe ibiltzen ginen ez? Edo eskola-kirola programa zela eta, entrenatzaileak eta gainera elebidunak. Eta hortxe ibiltzen ginen federazioekin eta: '-y queréis en euskara?' ba bai. Jakina, pentsa, beste hizkuntza modulu horrekin, esan genuen, hau da ideala, eta momentu honetan dira azkenean kontziente izatea eta esatea: pausoa eman behar da. Zer bitarteko jarri behar dira? Ba bitartekoak dira hau, hau eta hau. Tira, bueno ba jarri bitartekoak eta hasi lanean. Guri hori dagokigu.

Elkarrizketatu batek esana

Baina zer gertatzen da gurean dauden beste hizkuntza ez ofizialekin? Guri dagokigu hori?

Herri kirolen gaiak ere zer pentsatua eman ahal digu, herrigintza multikultural baten erronkari aurre egiterako garaian. Diru laguntzetan zein hitzarmenetan nabarmen baloratzen dira herri kiroltako lizentziak, eta hainbat herritan propioak kontsideratzen diren pilota eta arrauna, esaterako. Baina zer gertatzen da *Cricket*arekin edo *Ecuavoley*arekin? Zergatik ez bereziki lagundu hauek ere?

Jardunbide arautuetan ez da ezer jasotzen, ez etorkinen gainean, ez eta beste etnien gainean ere. Ez dut aurkitu behintzat. Elkarrizketek bestelako errealitate bat erakusten dute, baina etnia aniztasunarekiko nahiko soraio dirudien marko normatibo baten gabeziak guztiz baldintzatuak.

Hori bereziki nabarmena da musulman direnekin, beste etnia eta jatorriko pertsonekin alderatuta, eta zer esanik ez genero perspektiba txertatzen badiogu. Elkarrizketatutako kirol eragileen esperientzien argitara, soluzio bide ezberdinak eman izan ohi dira, borondate onenarekin seguru, baina oinarri eta irizpide argirik gabe.

Higiene arazoak aipatu ohi dira, arautegiak dion jantzi egokia baliatzen ez delako, egokitzen zer kontsideratzen den zehaztu gabe. Bestalde, egindako saiakerarekin ere askotan ez da lortu, aukera ezberdinak emanda. Hona hemen bi esperientzia:

“(…) nik hor ikusten dut gabezia handi bat daukagula eta batez ere emakume etorkinak eta bereziki erlijio musulmana dutenekin. Ze hemen eduki izan ditugunak gehiago dira eragozpenak. Ba igual: 'igerilekura sartu nahi dut baina nahi dut arroparekin sartu'. Eta jakina, guk araudi bat daukagu eta higiene kontuagatik ez dugu uzten. Eta nahiz eta beste aukerak eskaintzen saiatzen garen: 'ba neoprenoa erosi...' baina jakina, guk ematen dizugu bide bat, baina zuk jarraitu beharra duzu ez? Norbanakoak. Eta gertatu izan zaigu ere bai gimnasioan emakume bat hasi zen etortzen, eta gainera ba adineko ama bat. Baina jakina, bere tela, melfarekin eta horrela, eta batetik erabiltzaileen kexuak, baina tira. Horri kasurik egin gabe, gehiago ikusi genuen arrisku kontua. Makinetan tela luzeak arrastaka ibiltzearekin eta higieneagatik eta abar, eta esan genion jantzi horrekin ez etortzeko baina aurrez landu genuen: nola etorri daiteke emakume hau kiroldegira? Izango dira herrialde musulmanetan kirola praktikatzeko jantzi egokiak. Eta atera genuen Internetetik informazioa, eskaini genion baina ez zen itzuli.

Elkarrizketatu batek esana

Bai. Talde bat osatu zen hemen, emakumeen taldearen bitartez sortu zen beste talde bat etorkinena, eta bai luzatu zitzaigula eskaera bat, igerilekua erabiltzeko beraiek bakarrik kale bat. Kale bat bakarrik erabiltzearena edo tapatuta egotearena, neoprenoak eta horrelakoak... eta bueno. Guk hemen ez diogu eskaintzen inongo elkarte edo talderi kale baten erabilera eskusiboa. Batez ere gure igerilekuak lau kale bakarrik dauzka, estua da, leporaino

beteta daukagu, 360 lagun igeriketa ikastarotan daukagu lau kale bakarrik izanda eta igerileku txikia izanda. Eta orduan ez daukagu hori eskaintzerik, ez igeriketako elkarteari eta ez inori. Orduan erantzuna izan zen guk hori ezin genuela eskaini, ordutegi bat beraien erabilerarako bakarrik. Eta gero bestalde jantzien auzi hori ere... ba gure irizpidea edo izan zen bainujantzia erabili behar zela, eta pentsatzen genuela ba horrelako neopreno luzeak eta, ba ez direla bainujantziak eta erantzuna izan zen gure erabilera araudira egokitu behar zirela beraien erlijio ikuspuntu horren gainetik. Orduan ez zen egon beste halakoxe eztabaidarik eta hor gelditu zen gaia. Eta ez da egon geroztik horrelako eskaerarik edo horrelako demandarik.

Elkarrizketatu batek esana

Zenbateraino malgutu gure jarduera eskari hauei? Egiaz ez da posible? Zer nola izan liteke posible?

Egoera honek, gainera, adin eta genero perspektibatik baditu inplikazio asko, berebiziko erronka baita:

Eta eskolan dauden umeak daude integratuta total, bai neskek eta bai mutilak. Eta kirola egiten dute berdin-berdin. Gertatzen dira 15-16 urterekin hasten dira melfa... eta orduan umea ez da gehiago etortzen, inor, emakume musulmana da eta inor ez. Eta hasi ziren, egin zerbait... baina nahiago dute paseora eraman bere kasa. Juntatzen dira beraien zerarekin, orduan... Hor zaila daukagu.

Elkarrizketatu batek esana

Eta zer esanik ez, tartean desgaitasunen bat duen pertsona bat baldin bada, jarraian aurkezten dugun esperientziak erakusten digun moduan

“(...) elbarritasun oso-oso fuerte bat zeukan ume bat, oso fuerte bat. Bere aitarekin, bere amarekin zetorren, eta bueno, ea zer zerbitzu, zertan parte hartu zezakeen umeak eta abar, eta tira, igeriketa egokitua, ze oso-oso zailtasun larria, oso-oso fuertea. Baina esaten genien, hemen ezinbestekoa da aita edo ama ere egotea, batez ere hasiera baten. Gero ikusi beharko genuke nola moldatzen garen, nola egokitzen dan uretara. Hasiera batean arazoa zeukan, baina hortik aparte, jakina, aitak esan zuen ez zela sartu behar uretan, eta orduan ama sartzeko. Eta aitak ez zuen nahi ama sartzea, ez zuen nahi, ezin zen sartu igerilekuan.(...)”

Elkarrizketatu batek esana

Esperientzia positiboagoak ere izan badira. Agian gakoa aurkitu delako lortu da:

“(…)Detektatua zegoela emakumezko musulmanak ez zirela joaten, eta asmatu nahian, asmatu nahian, asmatu nahian, azkenean izan zen meskitako buruarekin hitz egitera joan, bere orduak ez dakit ze formakuntza ematen zituela ordu berean. Eta berarekin hitz eginda aldatu zen eta bai lortu zen bideratzea pixka bat erlijiotik, ba..., muga horiek tokia ematera. Eta beno, handik bideratuta eta lortu zen bere garaian (...)”.

Elkarrizketatu batek esana

Inolako ezbairik gabe, kultur aniztasuna zentzurik zabalenean lantzeari dagokionean, bada zer landua kirol politikan, beste dimentsioen aldean lanketa maila baxuagoa erakusten duena izanik.

b. Kirolaren ideia bera ez ote gizarte *EkitAktibo* baterako galga

Diagnosian aipatzen genuen moduan, badirudi kirolaren ideiarengatik inguruan eraldaketa bat gertatzen ari dela, kirolaren joko izaeratik jolas izaerara, eragile politikoaren erantzunen harira. Baina egia da, baita ere, hori ez datorrela bat egungo jardunbide arautuek jasotzen dutenarekin.

Lehenik eta behin, eta partida baterako zein besterako bideratzen diren aurrekontuen berri ez badugu ere, gure buruari galdetu beharko genioke kirol politiken aurrekontuko zenbat diru bideratzen den errendimendu ibilbideetara, eta zenbat parte hartzeoketara. Hau da, zenbat bideratzen den pertsona gutxi batzuegana eta zenbat gehiengoarengana.

Eguneko jardunbide arautuei so egiten badiegu, nabarmena da diru laguntzetan lehiaketari eta kirol federatuari ematen zaiola lehentasuna. Lehiaketa, gainera, geroz eta sona handiagoko izan, orduan eta babes ekonomiko handiagoa. Kiroldegietako zen beste udal kirol ekipamenduetara hedatzen da hori, kirol taldeek lehentasuna izaten baitute, eskola kirolarekin batera, espazioen erreserba egiteko garaian.

Errealitate horrek bere *habitus* propio bat eragiten du, hau da, egitura egituratzaile bilakatzen da, kirolaren praktika “zentralak” eta “periferikoak” birstortuz. Hau da, kiroltzat hartu izan dena horrela kontsideratzen jarraitzen da, materialki behintzat, nolabaiteko *futbolkrazia* baten jirabiran dabilena, *maskulinizatuagoa*, eta kirol *lighttzat* hartu izan direnak, ongizateari lotuagoak eta *feminizatuagoak*, periferian mantentzen dira.

Dinamika horrek, zalantzarik gabe, materialki zein immaterialki, errazagoa ala zailagoa jartzen du pertsona batzuk kirolera iristea, ezinbestean. Kontua da argitzea egungo ereduak nor uzten duen kanpoan eta nor barruan, eta, behin hori eginda, halakoa ote den kirolak gizarte eraikuntzan jokatzeko nahi dugun rola.

d. Zeintzuk dira gure aliatuak gizarte EkitAktiboagoko eraikuntzan?

Aliatuen gaineko hausnarketa lehenetsua dela iruditzen zait.

Aztertutako erremintak argi eta garbi erakusten dute toki erakundeek beren kirol politika zabaltzeko garaian federazioekin, klubekin, eskolekin eta familiekin (tradizionalez bereziki esango nuke) elkarlanean aritu izan direla.

Federazioek, klubek eta eskolek jasotzen dituzte diru laguntza gehienak eta aztertutako hitzarmenen onuradun nagusiak dira. Halaber, kirol instalazioak erabiltzeko garaian, lehenetsua eta erraztasun ekonomikoak izan ohi dituzte

Familiak, bere aldetik, hobarien prezio murrizketei onuradun nagusi dira, seme-alaben kirol ohituren bereganatzean berebiziko garrantzia baitute seguruenik.

Baina zer gertatzen da bestelako aliatuekin?

Azken urteetako gauza bada ere, osasun sistemako eragileak, maila ezberdinean, kirol politikaren zabalkuntzan aliatu nagusienetako bilakatu dira. Hor ditugu, esaterako, kirol errezetaren lanketa eta erorketa tailerren antolaketa, besteak beste. Azken hori bereziki hirugarren adinari zuzendua izan den ekimena da, eta Gipuzkoan zehar oso hedatuak dauden Tipi-Tapa programekin batera, hirugarren adineko elkarteek kirol politiken zabalkundearen hartu duten aliatu indar estrategikoa erakusten du.

Udaletako sailen araberrako eraketak berebiziko garrantzia du elkarlanerako dinamiketan. Herri bakoitza mundu bat bada ere, badirudi sailen arteko lana ez dela ohikoena. Zeharkakotasuna ez dirudi ohikoena denik eta, gertatzen denean, mahai intersektorial terminoetan, ez dakit kirola ez ote den senide txiki modura hartzen.

Kirol politiketan ekitatea lantzeko garrantzi berebizikoa du, edo izan beharko luke, hartu emanean aritzeak gizarte edo ongizate zerbitzuekin (herri bakoitzak bata edo beste izan ohi du eta, antza, eragina du kirol politikekin harremanetarako garaian). Elkarrizketatuek nabarmen erakusten dute, ohikoena den harremana goitik beherakoa izan ohi dela. Esan ohi dena da gizarte edo ongizate zerbitzuetatik pertsonaren batek ordaindu behar ez duela esaten zaienean, onartu egiten dela, eta kito.

Uste dut oso interesgarria litzatekeela harreman hori sistematizatzea eta sendotzea, ekitatea lantze aldera, ezinbesteko aliatuak direlako gizarte edo ongizate zerbitzuak.

Beste aliatu posible batzuk lirateke, eta hein batean dira, kalteberatasun egoeran dauden kolektibo ezberdinekin lan egiten duten erakundeak. Esan bezala, adinaren, generoaren eta osasun psikofisikoaren araberrako erakunde ezberdinekin lan egiten da, baina ez horrenbeste talde etnokultural ezberdinetako erakundeekin.

Edonola ere, uste dut argi planteatu beharko litzatekeela ea nortzuk ari diren kirol jarduera gehiago eta hobekiago sustatzen dutenak, eta nortzuk lagundu gaitzaketen inaktiboagoak diren horiengana iristen.

4. Etorkizun EkitAktiboa eraikiz

Kirol politika EkitAktibo baten lanketan, etorkizuna irudikatzea ezinbestekoa da. Diagnosiaren eskutik (non gaude?), prospekzioa egitea (nora joan nahi dugu?) ezinbestekoa da bitartekoak (nola joango gara?) zehazteko.

Zentzu horretan, geroz eta ohikoagoa da udaletan plan estrategiko orokorrak garatzea, baita kirolekoak propio egitea ere, nahiz eta ez den ohikoena. Horren adibide dira Donostia, Errenteria, Eibar, Arrasate, Lasarte-Oria, Bergara eta Astigarraga. Azpeitiko, Tolosako eta Zumaiako kasuetan, kiroleko plan estrategikoa ez badute ere, plan orokorrean kirolak paper nabarmena du.

Guztiek garapen maila ezberdina badute ere, kudeaketa arduratsua eta jasangarria aipatzen dituzte gehientsuenek, eta gai komunak ere ikusten dira. Nola ez, jarduera fisikoa sustatzea, osasunari eta kohesioari oso lotua, horretarako herri osoa kirol gune bilakatzeko joera nabarmena delarik. Turismoa era azaltzen da, naturarekin zein kirol ekitaldi bereziekin lotua.

Esanguratsua da nola ordenantzetan, diru laguntzetan eta hitzarmenetan ez bezala, plan estrategikoak sentiberagoak diren, generoa, adina eta osasun psikofisikoa bezain ohikoa ez den dimentsio etnikoarekiko. Horrela, Donostiaren kasuan eskola kirolaz mintzatzean zera esaten da:

Eskola kirolaren egungo eskaintza sendotu nahi genuke, hezkuntza, osasun eta jolas osagaiak azpimarratuz, gizarte egoera ahulenean daudenen jarduna handitu dadila bilatu nahian eta emakumeen eta etorkinen kirolaren eta Kirol egokituaren kasuan egun dauden

desberdintasunak murriztu nahian, gizarte kohesioaren eta euskararen erabileraren normalizazioaren alde eginez.:

**Donostia Kirola kirolerako hiri bat: gogoeta estrategikoa
2018-2020**

Zumaiako kasuan, berriz, zera esaten da:

Etorkinak herriko egitasmo, ekintza eta festetan parte hartzea sustatu, eta; integrazioa sustatu, herriko zerbitzuak (euskara, kirola, parte-hartzea...) beraien esku jarritz..

Biharko Zumaiara boga. ZUMAIA 2015/2025 PLANA.

Nolanahi ere, irudikapen hori, modu partekatu batean, egiteko dago, eta hori da hain zuzen ere lan honek abian jarri nahiko lukeena.

5. Behin-behineko hausnarketa pertsonala

Lanaren egituraketari jarraituta, ondorio nagusiak hiru atalen arabera azalduko ditut, landutako dimentsio sozioekonomikoak kontuan hartuz.

Diagnosiari dagokionez, nabarmena da formalki zein informalki egin litekeela, eta egiten dela, eta biek dutela garrantzia kirol eragileen esku-hartzea orientatzen duten heinean.

Modu informal batean argi dago kirol eragileek ezagutza handia metatzen dutela beren herrikideen kirol ohituren gainean. Zalantzarik gabe, herriko pultsua gertutik hartzeko aukera dute.

Edonola ere, hori pertzepzio bat da, berebiziko garrantzia duena, baina ezinbestean planteatu beharko litzakete ekitaterekin lotuak dauden aldagaiak kontuan hartzen dituen diagnosi formalak egitea eta, ahal dela, tokian tokikoak izatea.

Uste dut, bestalde, kuantitatiboak zein kualitatiboak izan beharko liratekeela, hainbat kasutan kirola egiteko ala ez egiteko gakoek ulergarriago diren estrategiak eskatzen dituztelako, ez baitugu ahaztu behar helburua dela erabaki politiko geroz eta hobeak hartzea, populazio inaktiboa murrizte aldera.

Zentzu horretan, gainera, ez dugu ahaztu behar errealitatean landu ditugun dimentsio sozioekonomikoak elkarrekin joan ohi direla, eta populazio konkretuak detektatzea izan litekeela ekintza eraginkorrak diseinatzeko edo egokitzeke modu aproposena, Sotok eta besteek dioten moduan (Bopp, 2018).

Elkarrizketaturiko hainbatek, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak egin lezaken ekarpena ildo honetatik ikusten dute, beren herrietako diagnosia egiten laguntzeko garaian.

Diagnosia egiterakoan, udalerrri bakoitzean zein Gipuzkoako Foru Aldundian ere, aurrekontuen berri izatea ezinbestekoa litzateke. Datu horrek, besteak beste, errendimendu eta parte hartze politiken arteko banaketa zein den jakiten lagunduko liguke, termino ekitatiboetan berebiziko garrantzia duen gaia baita. Argitzeko dagoen galdera litzateke ea zer dela eta gutxi batzuek kiroltako aurrekontuaren gehiengoaren daramaten. Ez dut esan nahi egokia denik ala ez, baina argitzeko dago.

Idea honek **jardunbide arautuen** atalera narama. Udalek dauzkaten kompetentzia formalen eta baliabideen eskutik doaz, baina elkarrizketetan ikusi ahal izan den moduan, norbanakoek ere badute klabe informaletan ekitatea kirol politiketan lantzeko gaitasuna. Erronketariko bat da, ordea, nola txertatzen joan daitezkeen klabe informal horiek, egoki kontsideratuz gero, jardunbide arautuetan (ordenantza, diru laguntza, hitzarmen eta arautegietan).

Azken batean, zalantza kasuan, hainbatetan ikusi den moduan, arautegiak zehazten duelako nola erantzun; erantzuna argi ez dagoenean, orduan arazoak.

Gipuzkoako perspektibatik, eta kudeaketarekin zeharo lotua, Gipuzkoaren errealitate partikularra izango genuke. Hau da, Gipuzkoako udalerrien erdiak Gipuzkoako populazioaren % 95 du bere baitan, eta ikerketa honetan gertatu den moduan, niri herri txikiengana iristea zaila egin zaidan moduan, ez dago oso argi nola lantzen ari den kirol politika herri txiki horiekiko. Nahi gabe neronek inekitatea birsortu dudan moduan, erantzun gabe geratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak ez ote duen gauza bera egiten bere kirol politika zabaltzeko garaian.

Horrek lotura du herri bakoitzaren errealitate anitzarekin. Gutxi batzuek herritar gehiengoaren errealitatea kudeatzen dute eta, gainera, baliabide nahiz azpiegitura ezberdinekin. Hori nabarmena da aztertutako jardunbide arautuetan zein herrietako lan dinamika ezberdinetan. Susmoa dut egitura birsortzaileak direla ekitatearen perspektibatik eta, ondorioz, aukera paregabea galtzen ari direla gizarte are eta EkitAktiboagoaren alde lan egiteko. Bestela esanda, uste dut “egin daitekeena” egiten ari garela eta ez “egin beharko litzatekeena”.

Zentzu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak eredu berri bat sustatu lezake intersektorialitateak apurtuaz eta udal eragileen erremintatan perspektiba *EkitAktiboa* txertatzeko garaian. Lidergo politiko honen garrantziaz eta esperientziak partekatze espazioez mintzo dira elkarrizketaturiko asko.

Askok esan dutenez, eskaera dagoenean ez dago arazorik. Baina ez dagoenean? Zentzu horretan uste dut Kirol Orientazio Zerbitzua aukera paregabe bat izan daitekeela kalera atera eta entzuten ez ditugun errealitate ezberdin horiei arreta jartzeko; zentzu horretan, galdetzeko gai ez diren horiei erantzuteko aukerak azalduko baitzaizkigu.

Uste dut zeharkakotasuna gehiago landu behar dugula, eta gure buruari galdetu zenbateraino naizen ekitatearen arduradun. Edo bestela esanda, zenbat egin dezakedan

ekitatearen alde. Kontua ez da guregan errudun sentimendu bat sortzea, inolaz ere. Helburua da dugun arduraz kontzientzia hartzea eta ahal dugun horretan ahalik eta gehien saiatzea ekitatearen alde.

Guk ere *EkitAktiboak* izan behar dugu. Gure ardura baita saiatzea eta saiatzea, Gipuzkoa are eta justuago bat eraikitzeke asmoz kirolean eta beraren bitartez.

Zentzu horretan, **etorkizuna irudikatzeke** erronkari dagokionean, plan estrategikoak tresna egoki bat izan litezke perspektiba *EkitAktibo* batetik, behin gure errealitatea ezaguturik, etorkizun hobeago hori irudikatzeke eta lantzeko bidean, eskailerek egiten duten moduan, mailaz maila gora egiten laguntzen baitigute.

Lan hau asmo horrekin jarri zen abian. Maila bat gehiago izateko asmoarekin. Bere txikitasunean bidea egiten laguntzen duena. Hala izan bedi.

6. Iturri bibliografikoak

Aldaz, J. (2010). *La Práctica de Actividad Física y Deportiva (PAFYD) de la Población Adulta de Gipuzkoa como Hábito Líquido*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.

Aldaz, J. (2014). “Kirol-politika, jokoala ala jolasa?” *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*. (89), 79-89.

Alkin, M. C. (2011): *Evaluation Essentials. From A to Z*. New York (USA): Guilford.

Coalter, F. (2007) *A wider social role for sport. Who’s keeping the score?* New York: Routledge.

Esposito eta Murphy, (2000), Bishop, R.-k aipatua, Denzin, N. K. eta Lincoln, Y. S. (Koord.) (2012). *Manual de Investigación Cualitativa Vol. I. El campo de la investigación cualitativa*. Barcelona: Gedisa Argitaletxea, 253. Orrialdea.

Guijt, I. and J. Gaventa (1998). *Participatory Monitoring and Evaluation: Learning from Change*. IDS Policy Briefing. Brighton, UK, University of Sussex. <http://www.ids.ac.uk/files/dmfile/PB12.pdf>

Patton, M.Q (2008). *Utilization-Focused Evaluation. 4th Edition*. Thousand Oaks (California): Sage Publications.

Preskill H, y Catsambas T T (2006), *Reframing Evaluation through Appreciative Inquiry*. Thousand Oaks, California. Sage Publications

Stake, R.E (2004). *Standard –Based& Responsive Evaluation*. Thousand Oaks (California): Sage Publications.